| 2016KO URTARRILAREN 26AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 26 DE ENERO DE 2016 |
|---|---|

| LEHENDAKARIA | PRESIDENTE |
|---|---|

Alvaro GONZALEZ PEREZ Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn
AMIEVA CLEMENTE, Paula and.
AMORRORTU MARTINEZ, Iñaki jn
ARRAIZA ARAMENDIA, Maite and.
ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
CORIA YANGUAS, Elena and.
COS YAÑEZ, Susana de and.
EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
GUTIERREZ PAZ, Arantza and
IBABE BOTELLA, Miguel jn.
ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
LANDA ARTECHE, José Luis jn.
PRADA OLLETA, Enrique jn.
RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn.
SAINZ ROBLES, Santiago jn.
URIARTE GOROSTIAGA, Inazio jn.

| AHOLKULARI JURIDIKOA | ASESORA JURIDICA |
|---|---|

Ainhoa ALONSO BASANDUA and.

| IDAZKARIA | SECRETARIO |
|---|---|

Juan Ig. ASTORKITZA MOTA jn.

Getxon, bi mila eta hamaseiko urtarrilaren 26ko 18:45etan, Udaltzaingoako Bilkura Gelan egindako ohiko bilkuran, Zuzendaritza Batzordea bildu zen eta goian zerrendatu diren pertsonak bertaratu ziren.

En Getxo, a las 18:45 horas del día 26 de enero de dos mil dieciseis se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Reuniones de la Policía Municipal, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

Gai-zerrendarekin hasi aurretik, Lehendakari jaunak erantzuna eman nahi dio EH Bilduk aurkeztutako eskaerari (urtarrilaren 15ean erregistratua GK-n).

Antes de proceder con el orden del día, el Sr. Presidente quiere dar respuesta a la solicitud remitida por EH Bildu y registrada en GK con fecha 15 de enero.

Eskaera

Getxo Kirolak erakunde autonomoetako Estatutuen 8. Artikuluan jasotzen den Zuzendaritza Batzordeari dagozkion betebeharren barruan eta estatutu horien 13. artikuluan islatzen denaren arabera, Getxo Kirolak-eko Zuzendaritza Batzordetako lehendakariari eskatzen diogu honako puntu hauek gai-ordenean sar ditzan, eztabaida, bozka eta, horrela balitz, onar daitezen:

Solicitud

Entre las funciones que le corresponden a la Junta Directiva que se menciona en el artículo 8 de los Estatutos del organismo autónomo Getxo Kirolak, según lo recogido en el artículo 13 de dichos estatutos, solicitamos al presidente de la Junta Directiva de Getxo Kirolak que incluya los siguientes puntos del orden del día, para su debate, votación y, en su caso, aprobación:

1.- URA agentziak Fadurako Kiroldegian egingo dituen lanek irauten duten bitartean, kirol instalazioetan izango diren afekzioak eta geratuko den kirol parkearen diseinua kudea ditzan pertsona bat kontratatzeko-aldi baterako lanpostu bat sortzeko-beharra aztertu, eztabaidatu, bozkatu eta, horrela balitz, onartzeko.

1.- Que se analice, debata, vote y, en su caso, apruebe la necesidad de contratar a una persona (creando un puesto de trabajo temporal) que gestione las afecciones que se produzcan en las instalaciones deportivas mientras se estén realizando los trabajos que efectuará la agencia URA en el polideportivo de Fadura así como el diseño del parque deportivo que resulte.

2.- Hala izatekotan, Getxo Kirolak erakundeak eginkizun horien inguruan dituen oinarriko gutxieneko beharrak, hautagaiek bete beharko dituztenak, eta lanpostu horri dagokion kategoria ezarriko dituen baldintzat aztertu, eztabaidatu, bozkatu eta, horrela balitz, onartzeko.

2.- Que se analicen, debatan, voten y, en su caso, aprueben las obligaciones básicas mínimas que el organismo Getxo Kirolak tiene respecto a estas funciones, que deberán ser cumplidas por las personas aspirantes, y las condiciones que establezcan la categoría correspondiente a este puesto de trabajo.

Zure erentzunaren zain, mila esker.
(Stu.: Maite Arraiza – Bildu Getxo Udal Taldearen Bozeramailea)

Quedo en espera de su respuesta, muchas gracias.
(Fdo.: Maite Arraiza – Portavoz del grupo municipal de Bildu Getxo)

Lehendakari jaunak adierazi du ez direla gai-zerrendan sartu, ez direlako Zuzendaritza Batzordearen eskumenekoak.

El Sr. Presidente informa que no se han incluido en el orden del día por estimar que son competencia del mismo y no del Consejo rector.

Lehen puntuari dagokionez, langileak kontratatzea lehendakariaren eskumenekoa da.

Referente al primer punto, informa que la contratación de personal es competencia del presidente.

Bigarren puntuari dagokionez, funtzioak definitzeko ardura arlo juridiko eta langileen arloarena da.

En cuanto al segundo punto, informa que la definición de funciones es competencia del área jurídica y de personal.

Rodriguez jaunak esan du egia dela bi puntuak gai ordenean sartzeko eskumena lehendakariarena dela, baina bi puntuak, gehiengoa ados egonez gero, bozkatu daitezke gai-zerrendan sartu ala ez.

El Sr. Rodriguez dice que es cierto que la competención para introducir esos dos puntos en el orden del día es del lehendakari, pero que también lo es que ambos puntos, si hay mayoría, se puedan someter a votación para su inclusión en el orden del día.

Gainera, gogoratu du 11 g) artikuluan ondorengoa esaten dela: lehendakariak langileen buruzagitza nagusia du, eta kudeatzailetzaren egitekoa da zuzendaritza-batzordeari proposatzea kontratatu beharreko langileen zerrenda.

Además, recuerda que el art. 11 g) recoge que el presidente desempeña la jefatura superior del personal, y que es función de gerencia proponer al consejo rector el nombramiento del personal a contratar.

Lehendakari jaunak erantzun du ez dela zuzendaritza-batzordearen eskumenekoa eta ez dagoela puntu horiek foro honetan jorratu beharrik.

El Sr. Presidente responde que no es competencia del consejo rector y que no ha lugar a tratar los puntos en este foro.

Rodriguez jaunak galdetu du 8 a) artikulua zertan zehazten den; izan ere, honela dio: zuzendaritza-batzordearen egitekoa dira jardueraren kontrola eta fiskalizazioa eta lehendakariak eta kudeatzaileak burututako kudeaketa. Hori dela-eta, Udaleko idazkariaren txostena eskatu du, kontrol eta fiskalizazio lan horiek zehazten dituena, hain zuzen ere.

El Sr. Rodriguez pregunta en qué se concreta el artículo 8 a) que dice son atribuciones del consejo rector el control y fiscalización de la actividad y gestión realizada por el presidente y el gerente. Por ello solicita un informe del secretario del ayuntamiento que concrete las labores de control y de fiscalización.

Lehendakari jaunak adierazi du fiskalizazio eta kontrol lanak egingo direla zuzendaritza-batzordeko gainerako pertsonei kontratazioaren berri eman eta gero, oraindik ez baitzaio inori informaziorik eman.

El Sr. Presidente indica que las labores de fiscalización y control se realizarán una vez que se haya informado al resto de personas del consejo rector sobre la contratación, no habiéndose efectuado tal información a nadie del consejo rector.

Rodriguez jaunak esaten du bere ustez batzorde kideon fiskalizazio lana hasten dela zerbaiten berri dutenean eta ez presidenteak esaten duenean eta Udaleko idazkariaren txosten teknikoa eskatu du berriro ere.

El Sr. Rodriguez dice que, en su opinión, la fiscalización de los miembros de la comisión comienza cuando tienen noticia de algo y no cuando lo dice el presidente y solicita nuevamente la emisión de informe jurídico del secretario del ayuntamiento al respecto.

Lehendakari jaunak txostena eskatuko duela erantzun dio.

El Sr. Presidente le contesta que solicitará dicho informe.

26.-AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

26.-APROBACION SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA REUNION ANTERIOR

Bertaratutako pertsona guztiek aho batez onesten dute aurreko bilkuraren akta.

Se aprueba, por unanimidad de las personas presentes, el acta de la sesión anterior.

27.- ZUZENDARITZAREN HIRU HILEKO TXOSTENA, 15/2010 LEGEAREN LAY.3 ETA BOST.4 ARTIKULUETAN JOSOTAKOA BETEZ (2015eko HIRUGARREN HIRUHILABETE)

27.- INFORME TRIMESTRAL DE LA DIRECCION EN CUMPLIMIENTO DE LO DISPUESTO EN LOS ARTICULOS CUARTO.3 Y QUINTO.4 DE LA LEY 15/2010 (3º TRIMESTRE 2015)

Lehendakari jaunak adierazten du deialdiarekin batera aipamen egiten zaion agiria bidali zela eta bertan bildutakoak egoki iritzitako galderak egitera gonbidatzen ditu.

El Sr. Presidente informa que, con la convocatoria, se remitió el documento referenciado e invita a las personas reunidas a realizar las preguntas que consideren oportunas.

INFORMAZIO OROKORRA

INFORMACIÓN GENERAL

1.- ALDI BATERAKO KONTRATAZIO TXOSTEN

1.- INFORME CONTRATACION TEMPORAL

Langile, erosketa-kontratazio eta arlo juridikoko arduraduna den Alonso andreak aldi baterako kontratazioaren inguruan egindako txostena banatu die bildutako pertsonei.

El presidente entrega a las personas reunidas un informe sobre la contratación temporal elaborado por la Sra. Alonso, responsable de personal, compras-contratación y jurídico.

2.- URA

2.- URA

Lehendakariak adierazi du, URAren obrak direla-eta, aparkalekuaren zati bat erabiltzeko aukerarik gabe utzi dutela, obrek eta lan horiek egiteko beharrezko bide-zidorrek harrapatzen dutelako. Era horretan, ordezko irtenbideak aztertzen ari dira; esate baterako, Larrañazubin ibilgailuentzat zegoen biltegi zaharra, Aiboa institutua, Oicosatik sartzeko aukerak, e.a. Bizilagunei neurri horien berri eman behar zaie.

El Presidente informa que con motivo de las obras de URA se ha inhabilitado parte del aparcamiento, ya que se ve afectado por las obras y servidumbres necesarias para efectuar las mismas, y que se están estudiando posibles soluciones alternativas tales como el antigüo depósito de vehículos en Larrañazubi, el insituto Aiboa, accesos por Oicosa, etc,, e informar al vecindario sobre estas medidas.

Gutierrez andreak proposatu du Getxo I institutuko aparkalekua prestatzea, instalazioetara Oicosatik sartu behar bada.

La Sra. Gutierrez propone que se habilite el aparcamiento del instituto Getxo I si se accede a las instalaciones por Oicosa

GALDE-ESKEAK

RUEGOS Y PREGUNTAS

Ondoren, Lehendakariak adierazi du EH Bildu talde politikoak bi idatziren bidez egindako galderak erantzungo dituela, akta honetan jasota gera daitezen, haiek eskatu moduan.

A continuación, el Presidente informa que dará respuesta a las preguntas efectuadas, a través de dos escritos, por el grupo político EH Bildu, para que quede constancia escrita en la presente acta, tal y como se solicitan en ellos.

Lehen galdera

Primera pregunta

Presidente jauna,

Señor Presidente:

Getxo Kirolakek formakuntza ikastaroak ordaindu ote dizkio aholkularitza lanean dagoen enpresako lagileei azken 6 urte hauetan?

¿Getxo Kirolak ha pagado los cursos formativos al personal de la empresa que desempeña labores de asesoría durante los últimos 6 años?

Lehendakariaren erantzuna: Ez. Aholkularitzak ikastaroak eman dizkie GK-ko prozesu-arduradunei, lan-taldeen kudeaketaren inguruan.

Contestación del presidente: No. Esta asesoría ha impartido cursos a los responsables de procesos de GK, en materia de gestión de equipos de trabajo

Erantzuna baiezkoa bada:

En caso afirmativo:

Zegatik ordaindu zaizkie diru publikoarekin formakuntza ikastaroak enpresa pribatu bateko langileei?

¿Porqué se han pagado cursos formativos con dinero público a personal de una empresa privada?

Lehendakariaren erantzuna: Ez

Zein irizpide erabili da?

Legezkotasuna

Getxo Kirolakentzat lan egiten duten beste enpresa pribatuetatko langileei ere formakuntza ikastaroak ordaintzen zaizkie?

Bai. Instalazioetako segurtasunaren, larrialdien eta norberaren babesaren planari buruzkoak dira.

Zeintzuk dira ordaindu zaizkion ikastaroak eta zer nolako kostua izan dute Getxo Kirolakentzat?

Segurtasuna eta larrialdiak: 160 pertsona. 120 bat kontrataturiko enpresetakoak eta 40 langile.

Euskara: 2 ordu kirol-ikastaroetako monitoreentzat, euskara-sailaren kontura.

Mila esker, (Stu.: Ibon Rodriguez Larrinaga)

<u>Bigarren galderaa</u>

Presidente jauna,

Jakin izan dugu Getxo Kirolakeko presidentearen aholkularitza lanetan dagoen langileak oporrak hartu dituela gabonetan. Langile guztiak bezala oporrak hartzeko eskubide oso dauka baina merkataritza kontratua izanda ulertzen dugu ordezkoa jarri behar duela bera kontratatu duen enpresak aholkularitza zerbitzua bermatzeko.

Aholkularitza lanetan dagoen enpresak ordezkorik jarri al du? Nor? Ordezkorik jarri ez badu nola eragiten dio horrek kontratuaren hileko prezioari?

Ez.

Ez du eraginik kontratuaren prezioan. Zerbitzua 2015eko abenduaren 31n amaitu zen.

Behin kontratuaren xedea amaituta, kontratu-harremana bukatutzat ematen da, kasu honetan, 2015eko abenduaren 18an. Ondoren, hilabete bateko epean, kontratuan zehar burututako jardueren laburpen-dokumentua entregatu behar da.

Mila esker, (Stu.: Ibon Rodriguez Larrinaga)

Jarraian, Ciudadanos Getxo (C´s) udal-taldeak aurkeztutako idatziari erantzuna eman dio Lehendakariak.

<u>GETXO KIROLAKEKO ZUZENDARITZA BATZORDEARI</u>

SANTIAGO SAINZ ROBLESek, CIUDADANOS GETXO (C´s) UDAL TALDEKO bozeramaileak, idatzi honen bidez ondorengoa ADIERAZTEN DUT:

Contestación del presidente: No

¿Cuál es el criterio utilizado?

Legalidad

¿También se pagan cursos de formación al personal de otras empresas privadas que trabajan para Getxo Kirolak?

Si; relacionado con la seguridad en las instalaciones, emergencias y plan de autoprotección.

¿Cuáles son los cursos que se han pagado y qué coste le han acarreado a Getxo Kirolak?

Seguridad y emergencias: 160 personas. 120, aproximadamente de empresas contratadas y 40 de personal.

Euskera: 2h para monitores y monotoras de cursos deportivos, a cargo del çarea de euskera.

Muchas gracias. (Fdo.: Ibon Rodriguz Larrinaga)

<u>Segunda pregunta</u>

Señor Presidente:

Ha llegado a nuestro conocimiento que la persona que trabaja como asesor del presidente de Getxo Kirolak ha tomado vacaciones en Navidades. Como todo trabajador, tiene derecho a disfrutar de vacaciones, pero tratándose de un contrato mercantil entendemos que debería haberse asignado a una persona sustituta para garantizar el servicio de asesoría por parte de la empresa que le ha contratado.

¿La empresa que realiza las labores de asesoría ha designado alguna persona sustituta?. ?Quién?. En caso negativo, ¿como afecta ésto al precio mensual del contrato?.

No.

No afecta al precio del contrato. El servicio prestado tenía como fecha límite de la prestación el 31 de diciembre de 2015.

Una vez finalizado el objeto del contrato, se da por finalizada la relación contractual que, en este caso, se produjo el 18 de diciembre de 2015, teniendo de plazo un mes para entregar el documento resumen de las actuaciones realizadas durante la duración del contrato.

Muchas gracias. (Fdo.: Ibon Rodriguz Larrinaga)

A continuación el Presidente da contestación al escrito presentado por el grupo municipal Ciudadanos Getxo (C’s):

<u>AL CONSEJO RECTOR DE GETXO KIROLAK</u>

SANTIAGO SAINZ ROBLES, portavoz del GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS-GETXO (C’s), por medio de este escrito, EXPONGO:

1) Gobela polikiroldegian dagoen megafonia instalazioa hondatuta dago aspalditik.

1) Que existe una instalación de megafonía en el polideportivo Gobela que está estropeada hace tiempo.

Erantzuna: Ez dago hondatuta, itzalita baizik, eta lehiaketa-partidetan pizten da.

Contestación: No está estropeada, está apagada y se enciende en los partidos de competición.

2) Kirol ospakizunetan edo ospakizun sozial askotan, oro har, uneren batean edo bestean musika tartekatu ohi da.

2) Que durante las numerosas celebraciones deportivas o sociales, en general, es costumbre intercalar música en uno u otro momento.

Erantzuna: Ez dakit ezer horren inguruan, baina giro-musika jartzeko, SGAEri ordaindu behar zaio, eta kirol-ikastaroetan erabiltzen den musika soilik ordaintzen dugu.

Contestación: No estoy informado de este asunto, pero para poner música ambiental hay que pagar a la SGAE, y solamente pagamos la música que se utiliza en los cursos deportivos.

3)Aurtengo urtean zehar, kirol-instalazioen erabiltzaileek esan dute arazoa konpontzeko hainbat ekimen egiten ahalegindu direla, baina ez dutela ezer lortu.

3) Que a lo largo de este año, usuarios de las instalaciones deportivas han manifestado que han intentado varias iniciativas para solucionar el problema sin resultado.

Erantzuna: Ez dakit ezer horren inguruan.

Contestación: No estoy informado de este asunto.

4) Megafonia erabilgarria da, osagai ludikoa izateagatik eta segurtasun-kontuak direla-eta edo zenbait informazio eta abisu hedatzeko ere bai.

4) Que la megafonía es útil, no solo por su componente lúdico, sino también por cuestiones de seguridad o para difundir ciertas informaciones y avisos.

Erantzuna: Ados nago, eta larrialdi-plana onartzeko zain gaude.

Contestación: Estoy de acuerdo y estamos pendientes de la aprobación del plan de emergencia.

Hori dela-eta, Getxo Kirolakeko Zuzendaritza Batzordeari ondorengo GALDERA egiten diot:

Por ello ELEVO al Consejo Rector de Getxo Kirolak la siguiente PREGUNTA:

Megafonia-sistema konpontzeko edo, horrela behar izanez gero, berria jartzeko, beharrezko lanak edo kudeaketak aurreikusi dira? Erantzuna ezezkoa bada, zein da hori ez egiteko arrazoia?

¿Hay previstos trabajos y gestiones necesarios para arreglar el sistema de megafonía o, en su caso, poner uno nuevo?. En caso contrario, ¿cuál es el motivo para no hacerlo?

Galdera lehendakariak atal bakoitzari emandako erantzunarekin erantzun da.

Se da por contestada conforme a lo manifestado por el presidente a cada apartado.

(Sin.: Santiago Sainz Robles - Ciudadanos Getxo (C´s) Udal Taldeko zinegotzi bozeramailea.

(Fdo.: Santiago Sainz Robles – Concejal_Portavoz del Grupo Municipal Ciudadanos Getxo (C’s).

Amieva andreak galdetu du erabakirik hartu al den Fadurako eta Gobelako instalazioak irekitzeko ordutegiak berdintzeko, eta ezetz esan diote, URAren obrak direla-eta, baina egin egingo dela.

La Sra. Amieva pregunta si se ha tomado alguna decisión para igualar los horarios de apertura de las instalaciones de Fadura y Gobela, contestándole que no, por las obras de URA, pero que sí se hará.

Amorrortu jaunak adierazi du aldi baterako kontratazioa ez duela onartzen, eta GK-ri 2016ko urtarrilaren 12an zuzendutako idatzia irakurri du jarraian:

El Sr. Amorrortu manifiesta el rechazo a la propuesta de contratación temporal, dando lectura del escrito dirigido a GK con fecha 12 de enero de 2016 y que lee a continuación:

“GUK GETXO Getxo Kirolakeko Lehendakariaren aurrean agertu da, eta ondorengoa ESAN DU: Jakin dugu LANBIDEra bidali dela edo laster bidaliko dela proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko teknikaria aldi baterako kontratatzeko eskaintza kudeatzeko eskaera. Hori dela-eta, idatzi honen bidez adierazi nahi dugu ez dugula onartzen kontratazioaren eskaintza egitea, ez eta ere hori burutzeko erabiliko den modua. Horretarako, ondorengo alegazioetan oinarritzen gara ALEGAZIOAK Lehena. GETXO KIROLAKEKO langile, erosketa-kontratazioa eta arlo juridikoko arduradunak egindako txostenaren arabera, ez da ikusten kontratatzeko premiarik dagoenik eta kontratazioa egin ahal izateko eskatutako legezko baldintzak ere ez dira betetzen.- Estatuko Aurrekontu Orokorren inguruko urriaren 29ko 48/2015 Legearen 21. artikuluko 2. puntuan honako hau esaten da 2016 urteari begira: <2016. urtean ez da aldi baterako langilerik

“GUK GETXO, ante el Presidente de Getxo Kirolak comparece y, como mejor proceda DICE: Que habiendo tenido conocimiento que se ha remitido, o en breve se va a remitir, a LANBIDE la gestión de la oferta de contratación temporal de un técnico de planificación y gestión de proyectos, por medio del presente escrito queremos mostrar nuestro rechazo con la oferta de contratación así como con la forma y modo en que se va a llevar a cabo la misma. Rechazo que sustentamos en las siguientes ALEGACIONES
Primera. Del informe elaborado por la responsable de personal, compras-contratación y área jurídica de GETXO KIROLAK, ni se concluye la necesidad de contratación ni se cumplen los requisitos legales exigidos para que la misma pueda producirse. Se debe recordar a estos efectos que la Ley 48/2015, de 29 de octubre, de Presupuestos Generales del

kontratatuko, ezta aldi baterako estatutupeko langilerik edo bitarteko funtzionariorik izendatuko ere, salbuespeneko kasuetan eta premiazko behar atzeraezinak estaltzeko izan ezik; azken horiek, gainera, lehentasunezko edo funtsezko zerbitzu publikoen funtzionamenduan eragiten duten sektore, eginkizun eta kategoria profesionaletara mugatuko dira>. Salbuespena eta premia aipatu egiten dira Txosten horretan eta ez dira egiaztatu: "beharrezkoa da, obrak garatzerakoan bezeroari behar bezalako arreta bermatzeaz gain, URAren obrarekin egingo diren antolakuntza-aldaketek eragina izango baitute instalazioen funtzionamenduan".- Eta hori esaten da, esanguratsua baita aurkeztutako proposamenean ez direla inola ere kontuan hartu, salbuespen-baldintza eta premia justifikatzeko orduan, 2012ko otsailaren 21eko 888/2012 Alkatetza Dekretuan eta Lehendakaritzaren 191/2015 Ebazpenean eskatutako baldintzak. Azken horren Laugarren puntuan ondorengoa esaten da: <Laugarrena. Aldi baterako izaerako programak betetzeko kontratazioak egin ahal izango dira, eskumenak ematearen ondorioz, administrazio-prozedura berriak edo plan edo programa berrien garapena direla-eta, izaera ez iraunkorreko zenbait jarduera edo zerbitzu emateko premiak sortzen badira, eta une horretan dauden langileekin estali ezin badira>. Izan ere, txostenean Alkatetza Dekretua eta Lehendakaritzaren Ebazpena aipatu arren, ez da gutxienez ere justifikatzen Txosteneko bigarren puntuan adierazitako lanak ezin direla estali dauden langileekin. Eta harritu egiten gaitu, eta asko, gainera, ondoren aipatuko ditugun zeregin hain ezberdinak aldi baterako langile baten eskuetan jartzeak, ikusita Getxo Kirolakek, Lehendakari eta kudeatzaile bat izateaz gain, badituela kalitateko eta kirol-berrikuntzako arduraduna; komunikazioko arduraduna; langile, erosketa-kontratazio eta arlo juridikoko arduraduna; bezeroak artatzeko koordinatzailea; eta instalazioen eta espazioaren arduraduna. Hona hemen, esan bezala, aipatzen diren zereginak: "Kirol espazioak eta zerbitzuak egokitzea eta berriz kokatzea; bezeroak artatzeko zerbitzua birbideratzea; zerbitzuan eragina duten komunikazioak koordinatzea; funtzioak berrikustea, eta, behar izanez gero, berriz egokitzea; parkearen irekiera koordinatzea; sarreren segurtasun eta kontrol sistemak ezartzeko ingurunean egin beharreko jarduerak hornitzaile ezberdinekin koordinatzea; obrek harrapatutako zonetan ematen diren ZERBITZUAK MODERNIZATZEA, 2013an jadanik hasitako informatizazio eta modernizazio planean aurrera jarraitzearren; obraren inpaktu soziala gutxitzea, inplikaturiko agente ezberdinen parte-hartzea sustatuaz, gobernantza ona kontuan izanda". Lehendik dauden langileekin ondo baino hobeto burutu daiteke pilotalekuen zonaren planteamendu berria, sarrerak kontrolatzeko eta ingurunea zaintzeko eta segurtasuna izateko sistema berria jarrita, sartzeko kontrolaturiko formula berriak landuta eta kirol-klubei, ikastaroak egiten ari direnei, pertsona abonatuei eta erabiltzaileei oro har zerbitzuak emateko modua aztertuta. Beste hainbeste esan behar da, Getxori kirol-arloan Europako 2014ko hiri onenaren saria ematearen ondorioz planifikatzen joan diren proiektuen jarraipen, garapen eta hedatzeari dagokienez.- Bigarrena. Bestalde, adierazi behar dut Plangintza Teknikariari esleitzea proposatzen diren zeregin batzuk, Getxo Kirolaken Erregelamenduaren xedapenez, esleituta daudela gobernu eta administrazio organoei. Era horretan, esate baterako, "Kirol espazioak eta zerbitzuak egokitzea eta birkokatzea" eta "Funtzioak berrikustea edo berriz egokitzea" Kontseilu Errektorearen egitekoak dira (Erregelamenduko 8 d) eta e) artikulua); koordinazio-lanak, berriz, Lehendakaritzarenak eta Kudeatzaileetzarenak dira (Erregelamenduko 11. eta 18. artikuluak). Horrek aditzera ematen du Plangintzako eta Kudeaketako Teknikariari esleitu nahi zaizkion lanei dagokienean, Kontseilu Errektoreari kendu nahi zaizkiola planifikatzeko eskumenak, eta, kontratatu beharreko teknikaria itzaleko Lehendakari edo Kudeatzaile bihurtu nahi dela, eta hori inola ere ezin du onartu GUK Elkarteak. Lehendakariak bere burua gai ikusten ez badu karguan jarraitzeko, edota, uste badu jarduneko Kudeatzailea ez dela gai pilotalekuen zonaren planteamendu berria koordinatzeko eta proiektuak garatzeko, horretarako gai den norbait bilatu beharko da, baina ez kontratatu gobernu-organoei emandako eskumenak edo Getxo Kirolakeko langileek erabateko bermeekin onar ditzaketen eskumenak bere gain hartu behar dituen teknikaria.- Hirugarrena. Kontratazioaren aurrean dugun aurkako jarrerari amaiera emateko, aurkeztutako hautaketa-prozeduraren opakotasuna aipatu nahi genuke. Aurrehautaketa Lanbidek egitea proposatu da, eta bidezkoena

Estado para el año 2016 dispone, en su artículo 21 Dos:<Durante el año 2016 no se procederá a la contratación de personal temporal, ni al nombramiento de personal estatutario temporal o de funcionarios interinos salvo en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables que se restringirán a los sectores, funciones y categorías profesionales que se consideren prioritarios o que afecten al funcionamiento de los servicios públicos esenciales.> Excepcionalidad y urgencia que, en el Informe citado, se limita a citar, que no acreditar.- “es necesaria, además de para garantizar la correcta atención al cliente durante el desarrollo de las obras, porque los cambios organizativos que la obra de URA van a suponer, van a afectar al funcionamiento de las instalaciones”.- Y se dice esto porque es revelador que la propuesta que se presenta no haya si quiera tenido en cuenta, a la hora de justificar la excepcionalidad y urgencia, los requisitos exigidos en el Decreto de Alcaldía número 888/2012, de 21 de febrero de 2012 y en la Resolución de Presidencia 191/2015. Resolución, ésta última, que en su Resuelvo Cuarto dispone: <Cuarto. Se podrán efectuar contrataciones para la ejecución de programas de carácter temporal cuando como consecuencia de una nueva atribución de competencias, la implantación de nuevos procedimientos administrativos o el desarrollo de nuevos planes o programas, surjan necesidades de abordar una serie de actuaciones o de prestar servicios, de carácter no permanente, que no puedan ser cubiertos con los efectivos existentes en ese momento.> Y es que el Informe, aunque cita el Decreto de Alcaldía y la Resolución de la Presidencia, no justifica, ni siquiera mínimamente, que las tareas señaladas en el punto segundo del Informe no puedan ser cubiertas con los efectivos existentes. Y es que choca, y mucho, que tareas tan dispares como “Adaptación y reubicación de espacios y servicios deportivos; Reenfocar el servicio de atención al cliente; Coordinar las comunicaciones que afecten al servicios; Revisión y en su caso readaptación de funciones; Coordinar la apertura del parque; Coordinar con los diferentes proveedores las actuaciones a acometer en el entorno de cara a implantar los sistemas de seguridad y control de accesos; MODERNIZAR LOS SERVICIOS que se prestan en las zonas afectadas a efectos de continuar en el plan e informatización y modernización ya iniciado en 2013; Minimizar el impacto social de la obra, promoviendo la participación de los diferentes agentes implicados con perspectiva de buena gobernanza” se vayan a encomendar a un contratado temporal cuando Getxo Kirolak cuenta, además de con un Presidente y un Gerente, con un Responsable de calidad e innovación deportiva; un Responsable de comunicación; un Responsable de personal, compras-contratación y jurídico; un Coordinador de atención al cliente; y un Responsable de instalaciones y espacio.- Con el personal existente se puede asumir con garantías el replanteamiento de la zona de frontones con un nuevo sistema de control de accesos, vigilancia y seguridad del entorno, con nuevas fórmulas controladas para acceder, así como el modo en que se prestan los servicios a los clubes deportivos, cursillistas, personas abonadas y usuarias en general. Otro tanto cabe decir respecto a la continuidad, desarrollo y despliegue de proyectos que se han ido planificando a consecuencia del reconocimiento de Getxo como mejor ciudad europea del deporte 2014.- Segunda. Por otro lado, debo señalar que alguna de las tareas que se proponen asignar al Técnico de Planificación está asignada, por disposición del Reglamento de Getxo Kirolak, a sus órganos de gobierno y administración. Así, la tarea de “Adaptación y reubicación de espacios y servicios deportivos” y la de “Revisión y en su caso readaptación de funciones” son propias del Consejo Rector (artículo 8 d) y e) del Reglamento), mientras que las tareas de coordinación son propias de la Presidencia y Gerencia (artículos 11 y 18 del Reglamento). Lo que trasluce de las tareas que se quieren asignar al Técnico de Planificación y Gestión, es que se quiere sustraer al Consejo Rector sus atribuciones de planificación y, además, convertir al Técnico a contratar en un Presidente y/o Gerente en la sombra, algo que, en caso alguno, puede ser asumido y aceptado por GUK. Si el Presidente no se ve capacitado para seguir en el cargo o, en su caso, considera que el Gerente en funciones no está

litzateke berdintasun, publizitate eta ez diskriminazio printzipioak errespetatuko dituen hautaketa-prozedura burutzea. Ondorioz, beharrezkoa litzateke hautaketa-prozesua egitea erabakitzea, hautatzeko oinarriak argitaratuta, izangaiek eskaera egin dezaten, horiei agintzeko baldintzak kontuan hartzen dituzten oinarriak aurrez ezarrita. Oinarri horietan, gainera, nahitaez bete beharko dira berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioak, eta hautaketa-batzordea izendatzeko era eta modua ere adierazi beharko dira, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuko Testu Bateratuko 60. artikuluan eskatutako baldintzen arabera. Enplegu publikoan sartzea eraentzen duten printzipioak ez betetzeak, hasitako kontratazio-prozesuaren erabateko deuseztasuna ezartzeaz gain, ordezkatzen duen erakundearen ospe-galtzea dakar, eta, beraz, berehala bertan behera utzi behar da.- Aurreko guztiaren ondorioz, ondorengoa ESKATZEN DUGU: idatzi hau aurkeztu dugunez, kontuan hartzea bertan egindako adierazpenak, eta, hortaz, bertan behera uztea Getxo Kirolakerako proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko teknikaria aldi baterako kontratatzeko eskaintza, eta LANBIDEri dagokion jakinarazpena egitea..- Getxon, 2016ko urtarrilaren 12an.- Sin.: GUK Getxo

capacitado para coordinar el replanteamiento de la zona de frontones y desarrollo de proyectos, lo que procede es buscar a quien si lo esté, pero no contratar a un Técnico que asuma atribuciones que o están atribuidas a los órganos de gobierno o que pueden ser asumidas con plenas garantías por el personal existente en Getxo Kirolak.- Tercera. No queremos finalizar nuestra oposición a la contratación sin hacer mención a la opacidad del procedimiento selectivo que se plantea. Se propone que la preselección se haga por Lanbide cuando lo procedente sería la realización de un procedimiento selectivo en el que se respeten los principios de igualdad, publicidad y no discriminación. Por ello, resultaría necesario arbitrar un proceso selectivo, mediante la publicación de unas bases de selección, para que los aspirantes soliciten su inclusión en él, estableciéndose previamente las bases que valores las circunstancias para ordenar a los mismos. Bases que, necesariamente, deberán tener presentes los principios de igualdad, merito y capacidad y que, además, deberán incluir la forma y modo en que se va a proceder al nombramiento de una comisión de selección el los términos exigidos en el artículo 60 del Texto Refundido del Estatuto Básico del Empleado Público. El incumplimiento de los principios que rigen el acceso al empleo público, además de imponer la radical nulidad del proceso de contratación que ha iniciado, supone un desprestigio del organismo que representa y, por tanto, debe ser dejado sin efectos con carácter inmediato.- Por todo lo que antecede, SOLICITAMOS, que teniendo por presentado este escrito, se tengan por hechas las manifestaciones que el mismo contiene y, en consecuencia, se deje sin efecto la oferta de contratación temporal de un técnico de planificación y gestión de proyectos para Getxo Kirolak, cursando la correspondiente notificación a LANBIDE.- En Getxo, a 12 de Enero de 2016. Fdo. GUK Getxo”

Arregik galdetu du zertan ez dauden ados, edukian ala forman.

El Sr. Arregi pregunta en qué no están de acuerdo, en el fondo o en la forma.

Amorrortu jaunak adierazi du ez daudela ados kontratazioarekin.

El Sr. Amorrortu indica que no están de acuerdo con la contratación.

Lehendakari jaunak erantzun du paradoxikoa iruditzen zaiola zerbait alegatzea horren inguruan txosten bat eman zaienean, baloratzeko, zuzentzeko, aldatzeko, e.a.

El Sr. Presidente contesta que le parece paradójico que se alegue algo cuando se acaba de entregar un informe al respecto para su valoración, corrección, modificación, etc..

Rodriguez jauna harrituta agertu da; izan ere, Lehendakaritzari eskatu zioten, zuzendaritza-batzordeko kide gisa, beraz dokumentazioa guztiz ofiziala dela uste du, Alonso andreak aldi baterako kontratazioaren inguruan egindako txostena, eta zer eta Lanbidera eskaerak eginda zeuden dagoeneko.

El Sr. Rodriguez se muestra asombrado porque solicitaron a presidencia, como miembros del consejo rector, por lo tanto piensa que la documentación es totalmente oficial, un informe de la Sra. Alonso sobre la contratación temporal y resulta que ya estaban relizadas las solicitudes a Lanbide.

Lehendakari jaunak adierazi du Lanbiderekiko kudeaketa geratu egin zela, eta, beraz, hasierako prozedura ere bai. Ondoren, beste txosten bat egin da, fiskalizatu behar dena, eta, hortaz, prozedura berriari hasiera eman zaio.

El Sr. Presidente informa que se paralizó la gestión con Lanbide y, por tanto, se paralizó el procedimiento inicial. A continuación se elabora un nuevo informe que es el que hay que fiscalizar y que, por tanto, se inicia un nuevo procedimiento.

Rodriguez jaunak berriz esan du Lanbiderekin kontratazio-prozedura hasita zegoela aipatu txostena eskatu baino lehen.

El Sr. Rodriguez insiste en que se había iniciado el procedimiento de contratación con Lanbide antes de solicitar el mencionado informe.

Gainera, EH Bilduk esan nahi duena hau da: URAren lanak direla-eta, aholkulari bat kontratatu behar bada, instituzioak eskubide osoa duela; kontratatutako enpresako aholkulariak, gaur arte, kudeatzailetza eta aholkularitza lanak egiten dituela, eta organigraman udal-langile bezala agertzen dela, aholkulari ordez.

Además, dice que la postura de EH Bildu es que si hay necesidad de contratar un asesor, debido a las obras de URA, la institución está en su pleno derecho; que la asesora de la empresa contratada, hasta la fecha, realiza labores de gerencia y de asesoría, y que en el organigrama aparece como trabajadora municipal en lugar de como asesora.

Are gehiago, URAren lanak medio, GKren instalazioetan eta azpiegituretan duten eragina kontuan hartuta, aldi

A más abundamiento, y debido a las obras de URA, con sus afecciones a las instalaciones e

baterako kontratazioa egin nahi da lanen segimendua egiteko eta orain arte garatutako funtzioekin jarraitzeko. Horrek ezkutuko aitzakia ematen du kontratazioa egiteko.

Ondorioz, Rodriguez jaunak baloratu beharreko baldintzen inguruko hiru galdera egin ditu:

1.- Zergatik elitezko kirolaria eta zenbat denborarako izango da baldintza hori.

2.- Zergatik 2HE eta ez 3HE edo 4HE, euskaldutze-planari eredugarritasuna emateko? Haren ustez, 3HE behar luke.

3.- Zergatik ez da baloratzen kirol-instalazioen kudeaketa eta bai kirol-proiektuena, eta zergatik dago puntuazio-aldea sektore publikoen eta pribatuen arteko prestakuntza-ikastaroetan?

Rodriguez jaunak argi utzi nahi du horrelako galdera hain errazak zergatik ez diren kontuan hartzen. Horrek kontratazioan zerbait iluna dagoela pentsatzera eramaten ditu.

Lehendakari jaunak galderak erantzun ditu:

1.- Donostia 2016 adibide gisa jarri du. Kontrataturiko pertsona guztiek kulturarekin lotutako kurrikulumak dituzte; horrela, kirolaren munduan ere gauza bera egin behar dela uste du.

2.- 2HE kalitateko arduradunaren postuarekin bat eginaz.

3.- Kirol-proiektuen kudeaketak ez du inolako zerikusirik kirol espazioen edo instalazioen kudeaketarekin.

Rodriguez jaunak adierazi du harritu egiten duela kirol-instalazioetako esperientzia kontuan ez hartzeak. Hizkuntza eskakizunari dagokionez, badirudi ez dela aurrera egin nahi, eta, elitezko kirolaria izatearen inguruan, ez daude ados; Rodriguez jaunak elitezko kirolariak lan merkaturatzeko politika horretan zenbat denbora irauten duen elitezko kirolaria izateari utzi zenetik.

Lehendakari jaunak adierazi du zuzendaritza-batzordeko pertsonek eta berak pentsatzen duena aurkakoak izan daitezkeela, baina, kontratazioa haren eskumenekoa denez, haren iritziak duela indarra.

Amorrortu jaunak adierazi du GKn pertsona batzuk udal lan-poltsetako zerrenden bitartez kontratatuta daudela, eta zergatik ez den egiten gauza bera kontratazio honekin.

Iturbe eta Landa jaunen ustez, horren inguruan estalitako akusazioak daude.

Gutierrez andreak aipatu nahi izan du akats ortografiko bat dagoela bilera honetan zehar entregatutako AQS txostenaren euskarazko itzulpenean.

infraestructuras de GK, se pretende realizar una contratación temporal para el seguimiento de las mismas y continuar con las funciones desarrolladas hasta ahora, lo que supone una excusa encubierta para realizar la contratación.

Por ello, el Sr. Rodriguez plantea tres preguntas relacionadas con los requisitos a valorar:

1.- Porqué deportista de élite y por cuanto tiempo se mantiene esta condición.

2.- Porqué PL2 y no PL3 ó PL4 para dar ejemplaridad al plan de euskaldunización. Entiende que debe ser el PL3.

3.- Porqué no se valora la gestión de intalaciones deportivas y sí la de proyectos deportivos, y porqué existe diferencia de puntuación entre los cursos de formación de los sectores público y privado.

El Sr. Rodriguez desea dejar claro que no acaban de entender que estas pregunta tan sencillas no se tengan en cuenta, lo que les lleva a pensar que hay algo oscuro en la contratación.

El Sr. Presidente contesta a las preguntas:

1.- Pone como ejemplo el caso Donostia 2016, en el que todas las personas contratadas tienen currículos relacionados con la cultura, entendiendo que en el mundo del deporte se debe hacer lo mismo.

2.- El PL2 por coherencia con el puesto de responsable de calidad.

3.- La gestión de proyectos deportivos no tiene nada que ver con la gestión de espacios e instalaciones deportivas.

El Sr. Rodriguez dice que le asombra que no se tenga en cuenta la experiencia en instalaciones deportivas; respecto al perfil lingüístico opina que parece que no hay voluntad de avanzar y, en relación con la característica de ser deportista de élite, no están de acuerdo; cuanto tiempo lleva el Sr. Rodríguez en esta política de incorporación al mercado de trabajo de los deportistas de élite desde que dejó de ser deportista de élite.

El Sr. Presidente expone que su pensamiento puede ser contrario al de las personas del consejo rector, pero si la contratación es competencia suya prevalecerá su opinión.

El Sr. Amorrortu expone que en GK hay personas contratadas a través de las listas de las bolsas de trabajo municipales, y porqué no se hace lo mismo con esta contratación.

Los Sres. Iturbe y Landa entienden que hay acusaciones veladas al respecto.

La Sra. Gutierrez hace un apunte sobre error ortográfico en la traducción al euskera del informe de AQS entregado en el desarrollo de la presente sesión.

Jorratzeko beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat ematen da akta honetako goiburuan adierazitako eguneko 19:50ak direnean.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:50 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Lehendakaria / El Presidente

Idazkaria / El Secretario